

6. BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Saltzailearen eta bezeroaren arteko harremana telefonoz eta guk sortutako webgune bitartekoa ez ezik, pertsonala ere izango da.

Webgunean karrituari buruzko informazio guztia egongo da eskura, eta bertatik bezeroek erosi ahal izango dute; hala ere, nahiago izatekotan, bezeroek bulegotik ere pasa daitezke, eta bertan gure langileek karrituari buruz jakin beharreko guztia azalduko die, eta nahi izatekotan karritua ikusi eta nola funtzionatzen duen frogatu ahal izango dute, baita erosi ere.

Horretaz gain, bezeroek webgunean iruzkinak uzteko aukera izango dute eta horrela guk gure produktua hobetu ahal izango dugu.

Webgunean ere gure telefono zenbakia egongo da eskuragarri, eta modu horretan, gure bezeroek laguntza pertsonala behar izatekotan, edota produktuari buruzko zalantzaren bat edo arazoren bat izatekotan, enpresako ordezkari batekin jar daiteke harremanetan.

